Para ello, tendrá que asegurarse que se respetan y siguen los requisitos establecidos en las primeras fases y coordinar las fases del desarrollo tecnológico en tiempos y forma.

GAIA se coordinará con Bizkaia Talent y MIK para el correcto despliegue de la herramienta.

4. El presupuesto estimado para el desarrollo del proyecto asciende a 254.833,71 €, habiéndose solicitado a la Diputación Foral de Bizkaia una subvención de 254.833,71 euros, conforme al presupuesto presentado junto a la solicitud de subvención.
5. Para el desarrollo del proyecto los dos participantes han suscrito un acuerdo de colaboración en el que establecen las condiciones de la colaboración, los compromisos asumidos y las actuaciones a desarrollar por cada parte, así como el reparto previsto de costes e ingresos.
6. Los dos participantes intervienen en la ejecución asignándose el trabajo a cada una de ellas según el reparto de tareas detallado en el acuerdo de colaboración suscrito por las dos entidades y recogido también en la memoria de actuaciones presentada junto con la solicitud.





memoriari erantsi zaio.

Laugarrena.- Zenbatekoa eta aurrekontu-kreditua

1. Dirulaguntzaren zenbatekoa berrehun eta berrogeita hamalau mila zortziehun eta hogeita hamahiru euro eta hirurogeita hamaika zentimo eurokoa da 254.833,71, hori baita baimendutako aurrekontu-kredituaren guztizko zenbatekoa. Kreditu hori 08.03/426106/451.00 aurrekontu-partidan izendatuta dago, 2022/0053 aurrekontu-proiektuan, eta urteko hauetan banatuko da:

2023	150.000,00€
2024	104.833,71€
Guztira:	254.833,71€

Erakunde onuradunen artean zenbateko guztia honela banatuko da:

- Bizkaia Talent, 21.858,30€ honako modu honetan banatuta:

2023	12.800,00€
2024	9.058,30€
Guztira:	21.858,30€

MIK 159.300,00€ honako modu honetan banatuta:

2023	101.800,00€
2024	57.500,00€
Guztira:	159.300,00€

GAIA 73.675,41€ honako modu honetan banatuta:

2023	35.400,00€
2024	38.275,41€
Guztira:	73.675,41€

2. Dirulaguntzaren zenbatekoa Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren gehieneko ekarpena izango da, eta garatu beharreko jardueretarako aurreikusitako zenbatekoaren gehikuntzak inoiz ez du eragingo emandako zenbatekoa gehitzea.

Cuarto.- Cuantía y crédito presupuestario

1. La cuantía de la subvención asciende a doscientos cincuenta y cuatro mil ochocientos treinta y tres con setenta y un euros 254.833,71, que es el importe total del crédito presupuestario autorizado. Dicho crédito está designado con cargo a la partida presupuestaria 08.03/426.106/451.00, proyecto presupuestario 2022/0053 y se distribuirá en las siguientes anualidades:

2023	150.000,00€
2024	104.833,71€
Total:	254.833,71€

La forma en que se repartirá el importe total entre las distintas entidades beneficiarias es la siguiente:

Bizkaia Talent 21.858,30€ de los cuales:

2023	12.800,00€
2024	9.058,30€
Total:	21.858,30€

MIK 159.300,00€ de los cuales:

2023	101.800,00€
2024	57.500,00€
Total:	159.300,00€

GAIA 73.675,41€ de los cuales:

2023	35.400,00€
2024	38.275,41€
Total:	73.675,41€

2. La cantidad destinada para la ayuda tendrá el carácter de aportación máxima por parte del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia sin que, en ningún caso, el posible aumento del importe previsto de las acciones a desarrollar implique aumento de la aportación concedida.





Bosgarrena. - Aplikatu daitezkeen araubide juridikoa

1. Zuzeneko dirulaguntza honi aplikagarri zaion araubide juridikoa dekretu honetan jasotako xedapenak izango dira eta, horrez gain, honakoak:

- a) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritako aginduak (aurrerantzean 38/2003 Legea).
- b) Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 22ko 3/2011 Foru Arauak eta otsailaren 29ko 2/2012 Foru Arauak aldatua (aurrerantzean 5/2005 Foru Araua).
- c) Dirulaguntzei buruzko Erregelamendua onetsi zuen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua, Dirulaguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatu duena (aurrerantzean 34/2010 Foru Dekretua), bai eta dekretu honen aldaketa ere Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 27ko 16/2018 Foru dekretuaren bidez, zeinen bitartez onartzen baita klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gida eta gainerako arauzko xedapenak.
- d) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea.
- e) Lehen aipatutako testuak garatzen dituzten erregelamenduzko xedapenak.

2. Dekretu honen interpretazioa, ondoreak, ebazpena eta behar bezalako betetzea direla eta sor daitezkeen eztabaida guztiak Bizkaiko Foru Aldundiak ebatziko ditu administrazio bidean hark emandako ebazpenak berehala betearaztekoak izango direlarik.

3. Dekretu honen ondoriozko auziak, horien izaera juridiko administratiboa dela eta, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren

Quinto. - Régimen jurídico aplicable

1. El régimen jurídico aplicable a la presente subvención directa estará constituido, además de por las disposiciones recogidas en el presente decreto, por las prescripciones contenidas en:

- a) La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (en adelante Ley 38/2003).
- b) La Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, que regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, modificada por la Norma Foral 3/2011 de 22 de diciembre de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia y la Norma Foral 2/2012 de 29 de febrero (en adelante Norma Foral 5/2005).
- c) El Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005 de Subvenciones (en adelante Decreto Foral 34/2010), y su modificación mediante Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 16/2018, de 27 de febrero, por el que se aprueba la guía para la inclusión de cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas y demás disposiciones reglamentarias.
- d) La Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
- e) Las disposiciones de carácter reglamentario que desarrollan los textos anteriormente citados.

2. Corresponderá a la Diputación Foral de Bizkaia resolver en vía administrativa cuantas controversias se susciten en relación con la interpretación, efectos, resolución y cumplimiento del presente decreto, cuyas resoluciones serán inmediatamente ejecutivas.

3. Las cuestiones litigiosas que pudieran derivarse del presente decreto, dada su naturaleza jurídico-administrativa, serán sometidas al orden





mende jarriko dira.

Seigarrena.- Erakunde onuradunen beste betebeharrak

Honako betebeharrak hauek izango dituzte laguntzen onuradunek:

1. Dirulaguntza emateko arrazoi den helburu, proiektu, jarduera edo jokaera lortu, burutu, egin edo hartzea.
2. Ekonomia Sustatzeko foru diputatuaren aurrean justifikatzea betekizun eta baldintzak betetzen direla, baita jarduera egin dela eta dirulaguntza emateko edo laguntza gozatu ahal izateko aintzat hartutako xedea bete dela ere.
3. Kontabilitate liburuak, erregistroak eta gainerako agiriak egunean edukitzea —egin beharreko eginbide eta auditoriak eginda, alegia—, pertsona onuradunari kasu bakoitzean aplikatu beharreko merkataritza-legerian eta legeria sektorialean ezarritakoaren arabera, egiaztapen eta kontrol ahalmenen erabilera egokia bermatzeko.
4. Jasotako funtsen erabilera frogatzen duten agiriak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol ekintzetarako erabilgarriak izan daitezkeen neurrian.
5. Dekretu honetan jasotako hedapen-neurriak hartzea.
6. Foru arau honen 33. artikuluan jasotako egoeretan jasotako funtsak itzultzea.
7. Baldin eta dirulaguntza emateko orduan kontuan hartu diren inguruabar objektibo edo subjektiboetatik edozein aldatu bada, aldaketa horren berri ematea dirulaguntza eman dionari.
8. Foru Administrazioako organoek edo eskatzen dien laguntza eta dokumentazioa ematea, bai eta, Europar Batasuneko araudiaren arabera, finantza-kontrolako eginkizunak esleitura dituzten organoek ere. Horretarako, honako ahalmen hauek izango dituzte:

jurisdiccional contencioso-administrativo.

Sexto. - Otras obligaciones de las entidades beneficiarias

Las entidades beneficiarias estarán obligadas a:

1. Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de las subvenciones.
2. Justificar ante la diputada foral de promoción económica el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.
3. Disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable a la persona beneficiaria en cada caso, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.
4. Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.
5. Adoptar las medidas de difusión contenidas en el presente decreto.
6. Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos contemplados en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005.
7. Comunicar a la entidad concedente la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiera sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.
8. Prestar colaboración y facilitar cuanta documentación sea requerida por los órganos de la Administración Foral, así como a los órganos que, de acuerdo con la normativa comunitaria, tengan atribuidas funciones de control financiero, a cuyo fin tendrán las





- a) Egiaztatu beharreko agirietara, euskarri informatikoan dauden programa eta artxiboak barne, iristeko askatasuna.
- b) Sarrera librea diruz lagundutako jarduera garatzen den edo dirulaguntzaren kargura finantzatutako eragiketen errealitatea eta erregularitasuna egiaztatzeke aukera ematen duten negozio-lokaletara eta gainerako establezimendu edo lekuetara.
- c) Fakturak, agiri baliokideak edo ordezkioak eta eragiketei buruzko beste edozein agiri atxikitzea edo kopia eskuratzea, baldin eta horietan dirulaguntza behar ez bezala lortu, baliatu edo erabili izanaren zantzuak ondorioztatzen badira.
- d) Dirulaguntzak kobratu diren edo funtsak erabili diren finantza-erakundeetako banku-kontuetako informazioa eskuratzeko askatasuna.

Laguntza emateko eta dokumentazioa emateko betebeharrak hori betetzeari uko egitea erresistentziatzat, desenkusatzat, oztopotzat edo negatibotzat joko da, 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, hala badagokio, zehapenen kalterik gabe.

- 9. Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea lanpostuen definizio, sarbide, kontratazio eta iraungipenean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasun eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean, bizitza pertsonal, lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzearen arloan, lanaren kalitate eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupen eta antolamenduan, ekintza sindikal, ordezkaritza eta negozio kolektiboan, betiere diskriminaziorik sortzen ez duten lan-baldintza duin eta gizalegezkoak bermatuta.
- 10. Zaintzea emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezen, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio

siguientes facultades:

- a) El libre acceso a la documentación objeto de comprobación, incluidos los programas y archivos en soportes informáticos.
- b) El libre acceso a los locales de negocio y demás establecimientos o lugares en que se desarrolle la actividad subvencionada o se permita verificar la realidad y regularidad de las operaciones financiadas con cargo a la subvención.
- c) La obtención de copia o la retención de las facturas, documentos equivalentes o sustitutivos y de cualquier otro documento relativo a las operaciones en las que se deduzcan indicios de la incorrecta obtención, disfrute o destino de la subvención.
- d) El libre acceso a información de las cuentas bancarias en las entidades financieras donde se pueda haber efectuado el cobro de las subvenciones o con cargo a las cuales se puedan haber realizado las disposiciones de los fondos.

La negativa al cumplimiento de esta obligación de prestar colaboración y facilitar documentación se considerará resistencia, excusa, obstrucción o negativa a los efectos previstos en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, sin perjuicio de las sanciones que, en su caso, pudieran corresponder.

- 9. Promover la igualdad de mujeres y hombres en la definición de los puestos de trabajo, acceso, contratación y extinción, clasificación profesional, promoción, formación, seguridad y salud laboral, política retributiva, corresponsabilidad y conciliación de la vida personal, laboral y familiar, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada laboral, y en la acción sindical, representación y negociación colectiva, asegurando unas condiciones laborales dignas, decentes y no discriminatorias.
- 10. Velar porque el tratamiento, protagonismo y valoración de mujeres y hombres sea equivalente y el fomento de una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e





dituen irudi bat sustatzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jarduera egiteko sortutako materialetan.

identidades de género, tanto en la información escrita, oral, iconográfica, acciones publicitarias, comunicación interna y externa, formal e informal como en los materiales generados o relacionados con la ejecución del proyecto o actividad.

11. Orobat bermatu egin beharko du neurriak hartuko dituela lan-arloan emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko, hari aurre egiteko, haren jarraipena egiteko, hura ebaluatzeke eta desagerrarazteke, bereziki sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko.
12. Emakumeen eta gizonen arteko ordainsari-berdintasunaren eta gardentasunaren printzipioa betetzea, 4/2005 Legearen 40 bis artikulua arabera.
13. Deslokalizazioan ez erortzea. Enpresa deslokalizaziotzat jotzen da Enpresak deslokalizatzen direnean foru-sektore publikoak laguntzak berreskuratzeari buruzko martxoaren 27ko 7/2007 Foru Arauak ezarritakoa, eta foru-dekretu honek arautzen dituen dirulaguntzei aplikatuko zaie foru-arau hori.
14. Diruz lagundutako jardueraren inguruko jendaurreko agerpen guztietan euskara erabiltzea. Era berean, onuradunak beren jardueraren berri herritarrei emateko erabiltzen dituen liburuxka, kartel edo beste edozein euskarritan bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira, hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuaren 13.3 eta 13.4 artikuluetan ezarritakoarekin bat.
15. Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 8., 9. eta 10. artikuluetan gardentasunari eta publizitateari dagokie ezartzen diren betebeharrak betetzea. Erakunde pribatu hauei aplikatu behar zaizkie, arau horren 2. artikuluekin bat: aurrekontu-ekitaldian zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euroren edo gehiagoren laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituztenei edo haien urteko diru-sarreraren % 40 Aldundiaren laguntzetatik edo dirulaguntzetatik badator, betiere gutxienez 5.000 euro badira.
16. Foru Administrazioak Bizkaiko Foru Aldundiari emandako dirulaguntzen araubide juridiko
11. Garantizar la adopción de medidas para prevenir, actuar, dar seguimiento, evaluar y erradicar la violencia machista en el ámbito laboral, y específicamente las relativas al acoso sexual y acoso por razón de sexo.
12. Cumplir con el principio de transparencia e igualdad retributiva entre mujeres y hombres, conforme al artículo 40 bis de la Ley 4/2005.
13. No incurrir en deslocalización empresarial, entendiéndose por tal lo prevenido en la Norma Foral 7/2007, de 27 de marzo, de Recuperación de ayudas del Sector Público Foral en el supuesto de Deslocalizaciones Empresariales, que será aplicable a las subvenciones reguladas por el presente decreto foral.
14. Utilizar el euskera en todas las intervenciones públicas resultantes de la actividad subvencionada. Igualmente, en todos los folletos, carteles o cualquier otro soporte utilizado por la persona beneficiaria para dar publicidad de su actividad a la ciudadanía deberán utilizarse las dos lenguas oficiales, de acuerdo con lo establecido en el artículo 13.3 y 13.4 del Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales.
15. Cumplir las obligaciones de transparencia y publicidad recogidas en los artículos 8,9 y 10 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de transparencia de Bizkaia que les son de aplicación de acuerdo al artículo 2 de dicha norma a aquellas entidades privadas que durante un ejercicio presupuestaria perciban de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen al menos una cuantía de 100.000 euros o cuando el 40% del total de sus ingresos anuales tengan el carácter de ayuda o subvención pública foral, siempre que alcancen como mínimo 5.000 euros.
16. La entidad beneficiaria deberá ceder en el marco de la Norma Foral de Subvenciones Norma Foral





orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren esparruan, laguntzaren xede den prestakuntzan proiektuan parte hartzen duten enpresen datuak laga beharko ditu erakunde onuradunak, politika publikoek talentua erakartzeari eta atxikitzeari dagokionez duten eragina ebaluatzeko, bai eta Ekonomia Sustatzeko Sailaren eskumenak erabiliz lurraldearen lehiakortasuna sustatuko duten talentua garatu, erakarri eta atxikitze jarduerak abian jartzeko ere

5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral a la Diputación Foral de Bizkaia, los datos de las empresas participantes en el proyecto, con el fin de evaluar el impacto de las políticas públicas en la materia relativa a la atracción y retención del talento, así como para poner en marcha actuaciones de desarrollo, atracción y retención del talento que fomenten la competitividad del territorio en ejercicio de las competencias del Departamento de Promoción Económica.

Zazpigarrena.- Helburu bera duten beste dirulaguntzak, diru-sarrera edo baliabide batzuekiko bateragarritasuna eta bateraezintasuna.

1. Foru-dekretu honen babesean emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administraziok edo erakunde publikok zein pribatuk ematen dituzten dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, baldin eta gastu hautagarri beretarako gehieneko laguntza-intentsitatea errespetatzen bada.
2. Hala ere, ez dira bateragarriak izango Bizkaiko Foru Aldundiak helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.
3. Dirulaguntzen zenbatekoak, bera bakarrik edo beste dirulaguntza nahiz laguntzekin batera, ezin izango du, inola ere, onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua gainditu.
4. Aurreko muga horietakoren bat gaindituz gero, emandako edo eman beharreko dirulaguntzari soberakinari dagokion kopurua kenduko zaio.
5. Onuradunak diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu dituela jakinarazi beharko dio Ekonomia Sustatzeko Sailari, horren berri izan bezain laster eta, nolanahi ere, funtsei emandako erabilera justifikatu baino lehen, eta, hala badagokio, egindako itzulketa-gutunaren kopia erantsita.

Séptimo. - Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad.

1. Las subvenciones del presente decreto foral serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, siempre que se respeten para los mismos gastos elegibles la intensidad de la ayuda máxima.
2. No obstante, no serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad concedidas por la Diputación Foral de Bizkaia.
3. El importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.
4. En caso de superarse alguno de los límites anteriores la subvención a conceder o concedida se minorará en la cantidad que corresponda al exceso.
5. La persona beneficiaria deberá comunicar al Departamento de Promoción Económica, tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos, la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas, acompañando copia de la carta de reintegro que, en su caso, hubiera





Hori guztia 5/2005 Foru Arauaren 18.3 eta 4. artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izateko eta, hala badagokio, itzulketa-prozedura hasteko.

realizado. Todo ello a los efectos previstos en el artículo 18.3 y 4 de la Norma Foral 5/2005, de manera que pueda modificarse la resolución de la concesión de la subvención y, en su caso, iniciar el correspondiente procedimiento de reintegro.

Zortzigarrena.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak

1. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira proiektuaren gauzatzeko epearen barruan, 2023ko azaroaren 1etik eta 2024ko abenduaren 31ra bitartean egindakoak, baldin eta diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten badiote eta jarduera egiteko behar-beharrezkoak badira. Dena den, behar bezala justifikatuta egon behar dira, indarrean dagoen araudiarekin bat, eta dekretu honetan ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen ordainduta egon behar dira, hau da, 2025eko apirilaren 30 baino lehen.
2. Honakoak izango dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:
 - a) Diruz lagundutako jarduera burutzeko lanari dagozkion barneko langileen gastu zuzenak. Kontzeptu horren barruan sartuko dira soilik soldatek eta gizarte kargak (Gizarte Segurantzza) erakunde eskatzaileari eragiten dizkieten langileriaren gastuak.
 - b) Jardueraren zati bateko azpikontratazioak.
 - c) Jardueraren xedeari zuzenean lotutako kanpoko zerbitzuak.
 - d) Diruz lagundutako jarduerari beren-beregi lotutako beste gastu batzuk, behar bezala frogatzen badira.
3. BEZagatik dirulaguntza emango da erakunde onuradunak egiaztatzen badu ezin dezakeela berreskuratu edo konpentsaziorik jaso.
4. Ez dira diruz laguntzeko moduko gastuak izango, inola ere, ondoko hauek:
 - a) Zeharkako zergak, baldin eta horiek berreskuratzeko edo konpentsatzeko modukoak badira, ezta errentaren gaineko

Octavo. - Gastos subvencionables

1. Se considerarán gastos subvencionables, los realizados dentro del plazo de ejecución del proyecto, desde el 1 de noviembre de 2023, hasta el 31 de diciembre de 2024, que respondan de manera indubitada a la naturaleza de la actividad subvencionada y resulten estrictamente necesarios para su realización. En todo caso, deberán estar correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor y pagados a la fecha de finalización del periodo de justificación establecido en este decreto, esto es, con fecha límite el 30 de abril de 2025.
2. Se considerarán subvencionables los siguientes costes:
 - a) Gastos directos de personal interno imputables al proyecto. Se entenderán en este concepto aquellos que correspondan a los gastos directos de personal por costes salariales y cargas sociales por cuenta de la entidad solicitante (Seguridad Social).
 - b) Subcontrataciones parciales de la actividad.
 - c) Servicios externos directamente vinculados al objeto de la actividad.
 - d) Otros gastos debidamente justificados directamente ligados al desarrollo de la actividad subvencionada.
3. El IVA será subvencionable cuando la entidad beneficiaria lo abone efectivamente y acredite no ser susceptible de recuperación o compensación.
4. En ningún caso serán gastos subvencionables:
 - a) Los impuestos indirectos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación ni los impuestos personales





zerga pertsonalak ere.

sobre la renta.

b) Banku-kontuetako interes zordunak.

b) Los intereses deudores de las cuentas bancarias.

c) Administrazio eta zigor arloko interesak, errekarguak eta zehapenak.

c) Intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.

d) Epaitegietakako prozeduretakako gastuak.

d) Los gastos de procedimientos judiciales.

5. Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada sektore publikoko kontratuen arloan kontratu txikietarako indarrean dagoen araudian ezarritako zenbatekoak baino, onuradunak hiru enpresa hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu gutxienez, zerbitzua egiteko edo ondasuna emateko konpromisoa hartu baino lehen. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun eta zerbitzuok hornitu edo egiten dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi hori behar bezala azaldu behar da justifikazioan.

5. Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas para el contrato menor en la normativa vigente en materia de contratos del sector público, la beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contratación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención circunstancia que deberá quedar explicada debidamente en la justificación.

6. Aurkezten diren eskaintzak justifikazioan jaso behar dira haien arteko hautapenerako irizpideak eraginkortasuna eta ekonomia izango dira. Eskaintza ekonomiko hoberena hautatzen ez bada, arrazoiak azaldu behar dira txosten batean.

6. La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

Bederatzigarrena. - Gauzatzeko epea

Diruz lagundutako jarduerak 2023eko azaroaren 1etik eta 2024ko abenduaren 31ra arteko epean, biak barne, hasi eta amaitu beharko dira.

Noveno. - Plazo de ejecución

Las actividades subvencionadas deberán iniciarse y finalizarse en el periodo comprendido entre el 1 de noviembre de 2023, y el 31 de diciembre de 2024, ambos inclusive.

Hamargarrena. - Dirulaguntza ordaintzeko epeak eta moduak, eta berme-araubidea

1. Bizkaiko Foru Aldundiak egingo duen ekarpena ordainduko da era honetan:
 - 2023ko urteko zenbatekoak laguntza onartu eta gero.
 - 2024. urteko zenbatekoak, erakunde onuradunak gehienez 2024ko irailaren 30ean eman ondoren, proiektuaren egoera azaltzen duen tarteko txosten bat eta

Décimo. - Plazos y modos de pago de la subvención, y régimen de garantías

1. La Diputación Foral de Bizkaia hará efectiva la aportación de la siguiente forma:
 - Los importes de la anualidad 2023 tras la aceptación de la ayuda.
 - Los importes de la anualidad 2024 tras la entrega por la entidad beneficiaria con fecha límite del 30 de septiembre de 2024 de un informe intermedio explicativo de la





2024ko ekainaren 30era arte egikaritutako gastuaren zerrenda xehatua.

situación del proyecto y una relación pormenorizada del gasto ejecutado hasta 30 de junio de 2024.

2. Hala ere, ordainketa aurreratuak diren arren, ez da beharrezkoa erakunde onuradunak bermea eratzea, ez baita ikusten Bizkaiko Foru Aldundiaren ohiko laguntzaile diren erakunde onuradunek beren gain hartutako betebeharrak ez betetzeko arriskurik, aurreko ekitaldietan dirulaguntzak jaso baitituzte eta diruz lagundutako jarduerak behar bezala gauzatu eta emandako dirulaguntzak behar bezala justifikatu baitituzte.
2. No obstante, a pesar de tratarse de pagos anticipados, no resulta necesario la constitución de garantía por parte de la entidad beneficiaria por no apreciarse riesgo de que incumpla las obligaciones asumidas por las entidades beneficiarias que son colaboradoras habituales de la Diputación Foral de Bizkaia, que han recibido subvenciones en los ejercicios anteriores y han ejecutado correctamente las actuaciones subvencionadas y justificado satisfactoriamente las subvenciones concedidas.

Hamaikagarrena.- Justifikatzeko epea eta modua

Undécimo. - Plazo y forma de justificación

1. Jasotzen den zenbatekoa dirulaguntzaren xederako baino ez da erabiliko, bertan ezarritakoak zehatz betez. Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiaren egiaztapen jardueren, Ogasun eta Finantza Sailari dagozkion finantza kontrol eta auditoretza jardueren eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren fiskalizazio prozeduren pean jarriko da.
1. El importe recibido se utilizará para el destino específico objeto de esta ayuda, con estricta sujeción a los términos establecidos y se someterá a las actuaciones de comprobación por parte de la Diputación Foral de Bizkaia, en su caso, y a las de control financiero y auditoría que corresponden al Departamento Foral de Hacienda y Finanzas y a los procedimientos fiscalizadores del Tribunal Vasco de Cuentas.
2. Onuraduna den erakundeak nahitaez justifikatu beharko du bete egiten dituela dirulaguntza emateko edo baliatzeko betekizunak eta baldintzak, bai eta jarduera egin dutela eta haren helburua bete dutela ere.
2. La entidad beneficiaria estará obligada a justificar el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinan la concesión o disfrute de esta subvención.
3. Egindako jardueren justifikazio osoa Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez aurkeztu beharko da, 2025eko apirilaren 30 baino lehen, hura betetzeko eta aurkezteko ezarritako baldintzen arabera eta ereduak erabilita, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorrita.
3. La justificación total de las actividades realizadas deberá presentarse a través de la oficina virtual del Departamento de Promoción Económica con fecha límite el 30 de abril de 2025 y deberá ajustarse a los requisitos y modelos establecidos para su cumplimentación y presentación, de acuerdo con lo previsto en el artículo 66.6 de la Ley 39/2015.
4. 34/2010 Foru Dekretuko 57. artikulua arabera justifikazio-kontua; horrekin batera gastuen frogagiriak aurkeztuta baten bitartez frogatuko da ezarritako baldintzak bete direla eta aurreikusitako helburuak lortu direla, eta dokumentu hauek jaso beharko ditu:
 - a) Jarduera-memoria; memoria horretan, honako hauek jasoko dira: helburuak eta
 - a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas,
4. La justificación del cumplimiento de las condiciones impuestas y de la consecución de los objetivos previstos deberá realizarse mediante el sistema de cuenta justificativa con aportación de justificantes de gasto previsto en el artículo 57 del Decreto Foral 34/2010 y deberá contener la siguiente documentación:





horien betetze-maila.

Aurreikusitako helburuak noraino lortu diren neurtzeko, memoriak, hala dagokionean, sexuaren arabera banatuta eduki beharko du informazioa, salbu eta posible ez den kasuetan: halako zirkunstantziak behar bezala justifikatuta egon beharko du.

Horrez gainera, erakunde onuradunak modu justifikatuta adierazi behar izango du ea, bere ustez, diruz lagundutako proiektuaren helburua ondo bete den.

b) 2023ko azaroaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra egindako jardueren kostua frogatzen duen memoria ekonomikoa; osagai hauek eduki behar ditu:

- o Dekretu horren xede den proiektuari egotzitako sarreraren eta gastuen egoera-orria.
- o Aurreko atalean adierazitako gastu-egoera osatzen duen partida bakoitzerako, jardueraren gastuen zerrenda sailkatua. Zerrendan, hartzekoduna eta agiria identifikatu behar dira, bai eta hari dagokion zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, zenbateko hori zein egunetan ordaindu zen ere bai.
- o Fakturen edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio bera duten edo eraginkortasun administratiboa duten agirien fotokopiak eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzeko agiriak.
- o Sarreraren egoera-orria osatzen duten partida bakoitzeko, jarduera finantzatu duten dirulaguntza, sarrera edo baliabideen zerrenda xehakaturik, bakoitzaren zenbatekoa eta jatorria adierazita.
- o Erakunde bakoitzaren legezko ordezkariaren ziurtagiria, proiekturako jasotako eta aurreikusitako diru-sarrerak adierazita; helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundeetako edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik jasotako

con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.

En orden a comprobar la consecución de los objetivos previstos, la memoria deberá, en su caso, proporcionar la información desagregada por sexo, salvo en aquellos supuestos en los que no resulte posible, circunstancia que deberá quedar debidamente justificada.

Además, la entidad beneficiaria deberá declarar de manera justificada si, a su juicio, se ha cumplido a su satisfacción el objeto del proyecto subvencionado.

b) Una memoria económica justificativa del coste de las actividades realizadas desde el 1 de noviembre de 2023 a 31 de diciembre de 2024 que contendrá:

- o Un estado de ingresos y gastos imputados al objeto del presente decreto.
- o Para cada una de las partidas que componen el estado de gasto señalado en el apartado anterior, una relación clasificada de los gastos de la actividad, con identificación de la persona acreedora y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago.
- o Fotocopia de las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa, incorporados en la relación anterior, y en su caso, la documentación acreditativa del pago.
- o Una relación detallada por cada una de las partidas que componen el estado de ingresos, de las subvenciones, ayudas ingresos o recursos, en su caso, que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y procedencia.
- o Certificación de persona representante legal de cada entidad indicando los ingresos recibidos y previstos para el proyecto; indicando las subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o





dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

